

Uholdearen zain



Dolores Redondo

Bilduma: Uzta gorria, 31

Formatua: 150 x 230 mm

Orrialdeak: 560

Koadernaketa: Paper-azala

Argitalpen data: 2023-11-20

ISBN-a: 978-84-9109-867-6

Materia: Helduentzako literatura



EROSKETA
AUKERAK

Paperezko edizioa

25,00 €

Serieko hiltzaile basati bat.

Haren bila ibili behar, azken taupadara arte.

Hiri bat uholdearen mehatxupean.

1968-1969 urte bitartean, gizon batek hiru emakume hil zituen Glasgoven. Prentsak John Biblia izenez bataiatu zuen hiltzailea. Ez zuten inoiz identifikatu, eta kasua zabalik dago gaur egun ere. Eleberrri honek laurogeiko hamarkadaren hasierara garamatza eta Noah Scott Sherrington polizia ikertzaile eskoziarra aurkezten digu. John Bibliarenganaino iritsi da bai Noah, baina, hura harrapatzeaz dela, bihotzak huts egin, eta hiltzaileak ihes egin dio. Osasun-egoera makalean badago ere, Noahk muzin egin die medikuen gomendioei eta nagusien ezezkoari –ez dute nahi serieko hiltzailearen atzetik jarraitu dezan–, eta bihozkada bati eutsiko dio; hala, Bilbora doa 1983ko abuztuan. Uraldi handi batek hiria birrindu baino egun batzuk lehenago, hain zuzen.

Dolores Redondok «ekaitzen idazlea» dela esan ohi du bere buruaz, eta nobela honetan pasa den mendeko ekaitzik handienetako baten epizentrorara garamatza; Bilboko egiazko gertakariak baititu oinarrian; aldi berean, garai baten erretratua erakusten digu, irakinaldi politiko eta sozial bete-betean. Liburu honek lanaren kultura omentzen du, eta nostalgiaz beteta dago, munduarekiko leiho bakarra irratia zen garaia gogora ekartzen baitu. Baina, batez ere, eleberririk musika omentzen du. Kuadrillen adiskidetasuna eta bulkadetatik sortutako maitasun-amodioak ere bai.

Obra txundigarri honetan, pertsonaiek ankerkeria lazgarriena azaltzen digute, baina baita gizakiaren gaineko itxaropena ere.

Dolores Redondo



Donostian jaio zen, 1969an, baina Cintruenigon bizi da. Zuzenbide- eta Sukaldaritza-ikasketak egin zituen, eta kontraera laburren eta haurrentzako ipuinen bidez hasi zuen bere literatura-ibilbidea. *Batzango Trilogia* arrakastatsuen egilea da. 2013an argitaratu zuen hirukoaren lehen liburua, *Zaindari ikusezina*. Trilogiaren hurrengo liburuak dira *Hezurren ondarea* eta *Eskaintza ekaitzari*. Ikaragarriko arrakasta izan du gaztelaniaz ez ezik euskaraz ere hiru lan horiekin. Bertan oinarrituta egin dira izen bereko hiru film arrakasta handikoak ere. 2016an, Planeta saria eman zioten *Hori guztia emango dizut* eleberrigatik. 2019an *Bihotzaren ipar aldea* argitaratu zuen; eta 2021ean, *Aingeruaren pribilegioak* (2009an argitara emandako bere *opera prima*). Redondoren lanak 36 hizkuntzataraz itzuliak izan dira, euskara tartean dela, eta Ereinen argitaratuak daude guztiak.

<http://www.doloresredondomeira.com/>